

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 12an hartutako erabakiaren laburpena: 2020-2021 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzea

BDNS(Identif.): 556930

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/556930>), (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Onuradunak

Deialdi honen bidez bi programa arautzen dira: arrunta, herritar orori zuzendua, eta bera-riazkoa, kolektibo jakinetako kideei zuzendua: gurasoak; aisialdiko begirale eta zuzendariak; eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begiraleak eta horretarako ikasketak egiten ari direnak, eta hiriko merkataritzako edo ostalaritzako langileak.

Bigarrena. Helburua

2020-2021 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2020ko uztailetik 2021eko ekainera bitartean egiten diren ikastaroetarako emango dira diru-laguntzak. HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroek ematen dituzten ikastaroetarako izango dira dirulaguntzak, aurrez aurrekoak, urrutiko aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz mistoak izan.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 12an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 149.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2021eko ekainaren 30 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 12a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO